

EIBARKO IDAZLEAK

EIBARKO IDAZLIEN ETA IDAZLANEN ANTOLOGIA

Aurkezpena

Eibar, 2000-II-03

Jose Antonio Arana Martija

“Asketsidazute, nere idaz-lan onen aurkezpena baño len, zuei agur egitera antzetzokian agertu banadi” Ez dira nire hitzak, Antonio Iturriotz idazle eibartarrarenak baizik, Pio Barojaren *La leyenda de Jaun de Alzate* eleberriaren itzulpeneko lehen hitzak, hain zuzen. Agurtzen zaituztet, bada, jaun-andre entzuleok, baina kezkatu eta urduritsu nagoela aitortuz. Gaur eskuartean dugun *Eibarko idazlien eta idazlanen antologia* aurkeztea eskatu zidatenean, erreparatu, zalantza eta beldurra ere izan nuen mandatua onartzeko, esku izateko aukera izan arren, ez neuzkalako jokoan hogeita hamaika irabazle ateratzeko. Eibarren bazeudela hiru errege eta batekoak esan nien proposatzaileei, nik baino hobeto bete zezaketenek zeregin hau. Gogoan neuzkan gai honetaz ni baino eibartar adituagoak eta hala azaldu nien. Baina esan zidatenez, etxeko eltzean egosi beharrean, hobe zela lapikoa kanpoko sukaldera eramanean aldameneko gozagarri pitinen bat jakiak izan zezan. Hemen naukazue, bada, zuen alorreko euskara dela eta asko ikertu eta idatzi bada ere, kanpotik ikusita zerbait adierazi nahian.

Bizkaieraren esparrua dela eta, Louis Lucien Bonapartek egin zuen euskalkien sailkapenaz geroztik, asko izan dira azpieuskalkien sailkatzeak. Bergarako azpieuskalkian kokatzen zuen Bonapartek Eibarkoa. Ez zebilen urrun Koldo Zuazo eibartarrak eman dugun sailkapenetik. Deba ibarreko bizkaiera hartzen du honek azpieuskalkitzat, Deba goienakoan Aramaio, Leintz, Oñati sarturik eta Deba erdikoan Bergara eta Eibar. Baina nik esango nuke Deba erdiko horretan berezi samarra dela Eibarkoa, gehienbat fonetika aldetik. Baina gero aztertuko dugun gaia da hau. Markinako euskararen eragina ere baduela Eibarkoak uste du Juan San Martinek. Ez dezagun ahaztu Juan Antonio Moguel, Eibarren jaioa (1745). Markinan bizi izan zela ia bizi osoan eta han idatzi zituela bere lanak; baina aipatu beharra da, baita ere, lehenak gipuzkeraz argitaratu zituela. Bera izan zen bizkaieran “j” biguna idazten hasi zen lehe-

na, “i-a” bitartean ahoskatuz. Harira datorrenez, esan behar da Bonaparte Eibartik iragan zela 1856.eko irailaren 22an. Badirudi 3.800 biztanle orduan zituen herri txiki honetan ez zela geratu Bilbotik Donostiara egin zuen bidaian. Osteren datu zehatzak ematen dizkigu Bonapartek eta egun horretan honako hau idazten du: “6. (goizeko 6etan) Bilbao, Begonia, Galdacano, Zornoza, Durango, Berriz, Ermua, *Eybar*, Elgoibar” non lotarako gcratu zen hurrengo egunean Donostiara abiatzeko. Izatez, Bergara zen administrazio aldetik eskualdearen burua eta Eibarrek baino biztanle gehiago zeukana, hots, 6.100 garai hartan. Bergarako Julian Atxotegirekin izan zituen harremanak eta azpieuskalki hau aztertzeke, besteak beste, honek idatzitako Dotrina erabili zuen eredutzat. Gai hau sakonki ikertzeke liburu interesgarri bat dugu, hots, *Bergarako Euskera* (1988) non egertzen den, sarrera gisa, Jerardo Elortzaren “Bergara eta euskara” iker-lana, eta gero beste kapitulu batzuk fonetikaz, deklinabideaz, aditz-jokoaz eta abar. Deba ibaiak Eibar eta Bergara arteko elkarbidea errazten du eta Azkonabieta mendiak ez dio oztopo handirik sortzen hizkeraren komunikazioari.

Marko honen barruan datorkigu gaur Eibarko euskararen berezitasunak adierazten dituen liburua: *Eibarko idazlien eta idazlanen antologia*, Enrike Izagirre, Miriam Lizarralde eta Antxon Narbaizak paratua eta udaleko Euskara Batzordeak argitaratua. Ez da, izatez, gai honetaz argitaratzen den lehena. Nik etxean dauzkadan eta begiratu ahal izan ditudanak badira: Antxon Narbaizaren *Eibarko Gatzizenak* (1990), Juan Andres Argoitia, Nerea Azkarate eta Xabier Gezuragak argitaratu zuten *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk* (1995), Narbaizak berak atera zuen *Eibarko euskara: Gutxiespenaren historia* (1998) eta Imanol Laspiur, adiskide mina zenak, Serafin Basauriren hitzaurre eta laguntzarekin kaleratu zuen *Eibarrera jatorraren bidetik* (1999). Baliteke beste liburu batzuk ere izatea, eta parka egidazue nik ez ezagutzea. Aldizkarietako artikuluak ere ugari dira. Gaurko belaunaldiaz ari naiz emandako aipamenetan; baina zelan ez gogora ekarri Toribio Etxebarría eta Juan San Martinen lanak, zerrenda luzea emango liguketenak eta gerorako uzten ditudanak.

Nire ikerketatxo hau hasteko esan dezadan Eibarko euskara sarri eta leku askotan gutxietsia eta mezzepzatua izan dela. Inoiz entzuna dut Eibarko esaldi hau: “Hau dok trigua maduratzeko denbora”. Ez haserretu, mesedez, badaikit hau hala ez dela eta. Euskaltzaindiak 1959. eko azaroaren 6, 7 eta 8an antolatatu zuenean Eibarren Euskalzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez, “Eibartarrak eta euskera” izenburuaz hitzaldia eman zuen Seber Altubek, arrasatear-gernikar euskaltzainak. Besteak beste, halakoak esan zizkigun: “Eibartarren euskera gramatikaz, garbi eta jator izan da beti; gaur ere bai; baina iztegiz mordoillo fama ematen diote. Fama ori ere ez da egiazkoa” Eta beste halako hau: “Esaera zaarrak dirauskigu: ‘Al danean al dana itxasoko arraiñik onena’. Al danean al dan bezela ekin diote, beraz, eibartarrek burdin-langintzan, saldu-erosietan, ... baita langilleen defentsako mitin eta

itzaldi guzietan ere. Parkatu, baiña ezin aztu ditut honelako bi predikalari: Don Poli, eskuma aldetik, eta Amuategi ezkerretik; baina biok eibartar jatorrak, biok euskaldun-euskaldun” Ondo ezagutzen zuen Altubek Eibarko euskara. Arrasatetik 1901ean Gernikara etorrira, 1913an lehendabiziko fabrika sortzearen lekuko izan zen: Rufino Unzeta eta Juan Esperanzak, Eibartik etorrira, *Astra* arma fabrika eraiki zuten eta bertatik ekarri horretarako trebetuta zeuden beharginak. Eta asko zirenez etorriak (eta ez trenak ekarriak, erdaldunengatik Gernikan esaten den bezala) eta denak Eibarko euskaldunak, euren aztarna utzi zituzten Gernikan, gehien bat hitz teknikoetan. Aipatu behar dut hemen, geroxeago Altubek berak sortu zuela beste arma fabrika bat, Alkartasuna izenekoa. Beraz, lanabes edo erreminten izenak, behintzat, ugaldtu ziren Gernikako hizkeran.

Eibarrera mordoiloa dela esateak badakit eibartarrak mintzen dituela. Eta lagunartean haserre sortzen bada ere, badira idatziz ere aurka azaldu direnak. Bat aukeratzearen, Juan San Martinek idatzitakoak irakurriko dizkizuet. Toribio Etxebarriaren “Flexiones verbales de Eibar” *Euskera* aldizkarian (1963-64) argitaratu zuenean, hitzaurretxoan hala zioen San Martinek:

“... por el exagerado criterio que siempre ha reinado en el país de considerarnos a los eibarreses de lenguaje extremadamente adulterado por el castellano. Este es un error de bulto, si lo analizamos bajo un punto de vista matemático: un eibarrés puede emplear en su léxico, suponiendo, un 40% de vocablos extraños, y no solo procedentes del castellano, sino de lenguas romances; un donostiarra, vamos a suponer, empleará un 15%, y no niego que pueda haber tal diferencia. Pero a su vez el eibarrés, en las relaciones normales de su vida cotidiana, empleará en su desenvolvimiento unas 6000 palabras; el donostiarra, tal vez porque desde anataño el euskera no es su lenguaje normal para las necesidades de la vida, empleará en proporción a los eibarreses, la mitad o poco más de vocablos, y como digo vocablos diría también flexiones verbales. Lo que hace que si el eibarrés emplea mayor número de vocablos de procedencia extraña, también emplea en mayor número los netamente euskaldunes. En un donostiarra salta a la vista la falta de recursos, pero aún no he oído a nadie hablar socarronamente de la pobreza del lenguaje donostiarra...”

Baina eibarreraren aberastasun hori ez datza bakarrik hitz arruntetan, aditz-jokoan, hitanoa erabileran eta bizkaierazko berba arkaikoetan. Industria eta teknika ere harrobi joriak dira eibartarren hizkerarako, bai maileguzko hitzak egokituz, baita berriak asmatuz ere. Etxaitar goitzenarekin idatzi zuen Jon Etxaide Ithartek *Euzko Gogoan* “Euskera Arriaroan” artikulua (1954) non esaten zuen *zulakaitz* hitzaren ordez “cincel” (edo “zizela”) erabiltzen zela Eibarren. Hala ulertu zuen Antonio Iturriotzek Etxaideren esaldia (nahiz eta nire ustez alderantziz izan, hots, “cincel”ari “zulakaitz” deitzen ziotela). Dena den,

aldizkari horren hurrengo alean Iturriotz eibartarrak erantzuten zion “egi garbiaren magaletik at dabilena” 1955eko lehen alean, “Etxeitar Jaunari” izenburuko artikuluan. Hara zer diotson:

“Cinzel horrek zauritu dit apur bat ene eibartar izate arrotasuna... Jakiña, ezin genbilke eibartarrok arroegi geure izkeraren politasuna delata; erderakadak geron erausietan sarrerazten dituguna ezin uka dezakegu. Baiña non ote erderakeri oriek sartzen eztituen tokia? Zedorren errian, noski, dala dalakoa bera? ... Gure errian etzitzakio esaten “cinzel” zulakaitzari, *goizabal* baizik; eta *beran* (berana) tresna ori estua danean ... beran ori burnia berontz sakaitzekoa izaten dalako”

Eta anekdota hau kontatzen dio/digu Iturriotzek lehen esandakoari jarraipena emanaz, armak bakarrik ez baitira esportatzen Eibartik euskal hitzak ere bai:

“Eibar’ko seme banakak joan oi ziran Oviedo’ra orain berrogeitamar urte ta geiagoz, (mendearen hasieran, beraz) ango izkillutegian lan egiñez. Egintza orren eragipenez, asturistarrek lantegi artan “la barautza”, “la ortza”, “la ardatza” izendatzen zituzten tresna oiek, gaztelera broca, cuchilla, machuelo diranok. Eibartar aiek “brokia” esaten ikasi bearrez (egun ia Euskalerra osoan esaten dela dirudi) barautza esaten irakasi belarrimotxei; oar ezazu nolako sutsu erabil bearreko izango zituzten itz oriek, gutxienek geienei mingaña ezarrazteko”

Armagintzan Eibarren erabiltzen diren hitzen zerrenda ematen digute Ramiro Larrañagak *Síntesis Histórica de la Armeria Vasca* liburuan (1981) eta *Museo de Armas. Eibar* ondo apainduan (1984). *Burdin laneko zenbait tekniku itz* idazlana zor diogu Juan San Martini (*Euzko Gogoia*, 1958). Arma fabrikak Sorraluzen eta Eibarren XV. mendetik dira eta beste fabrika, tailer eta industriak geroztik, Unibertsitate Teknikoa barne (1968).

Eibarko beste berezitasun eta aberastasun bat hitanoaren erabilera da, hinkako hitzegite era edo hiketa. Dakizuenez, toka gizonezko bati hitzegiterakoan erabiltzen den aditzaren forma edo aldaera da, eta noka emakume bati hika egiteko aldaera. Eibarko aditz-jokoaren aberastasunari hau ere eranstean zaio. Euskarak duen aditz-joko berezi honi buruz zera zioen Orixek (*Karmel*, 1960):

“Nik gitxiarik dakidana Eibarko euskera da; baiñan ez dot itxi aitu bage aditzaren ioka-itx orreitatik bat bera ... Batez bere to-ta-no dabil ederto. Gaur Gipuz-Gipuzkoan zenbat ete dira berbeta au adituko dabenak?”

Vicente Agirre Gisasola (1829-1907) Eibarko medikuak ponteizen eta deitura hauekin argitaratu zuen jaioterriko Orueren moldiztegian *Tentativas de re-*

construcción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra, 407 orrialdeko liburua (1898), lehenago *Euskal-Erria* aldizkarian Jose Guisasaola goitzenarekin kaleratutako artikulua liburu honetan bateratuz. Zera diosku 1886an, Julien Vinsonen ikerketetaz baliatuz: “Los verbos alocutivos (hitano-koak noski) tienen en las lenguas americanas un sufijo “k” para el masculino y “n” para el femenino” Eta geroxeago (1888) adibideak ematen ditu: *deuztak*, *deuztan*. Baina hitanoaren erabilera murrizten zihoala (agian, Eibarren) diosku (EE, 1888, XVIII, 316): “Zu, usted, quedó para el singular del trato cortés y concluyó por acorrallar a su antagonista “i”, cuyo uso se halla muy limitado, excepto entre jóvenes y criaturas”.

Iragan XIX. mendearen erdian ugari erabili zen hitanoa Euskal Herrian. L. L. Bonapartek *Le verbe Basque en tableaux* ikerlan paregabea, oharrez bete-ko kapitulu luzea eskaintzen die hitanozko formei, aditz alokutiboari hain zuzen. Baina “k” gizonentzat eta “n” emakumezkoentzat bereizten baditu ere, lau aditz-joko bakarrak ematen dizkigu: Gipuzkoa, Bizkaia, Laburdi eta Zuberoan bildutakoak. Pedro Yrizarrek, bere *Morfología del verbo auxiliar vizcaino*, II, (409-436) delakoan, beti Bonaparte oinarritzat hartuz, eta Azkue, Etxebarria, San Martin eta Iñaki Gaminderen ikerketak gehituz, VII laukitan azaltzen digu Eibarko aditz-joko normala eta hitanozko bi formak bereizten ditu azpian. Eibarko Euskara Batzordeak osatu zituen bi aipatu lan hauek Aditz-Batzordia sortuz, zeinek lan oparoa argitaratu zuen 1998an: *Eibarko aditza* 233 orrialdeko liburua, aditz-joko osoa azaltzen duena.

Eibarko aditza dela eta, ezin dugu beste berezitasun bat ere ahaztu: aditz sintetikoaren ugaritasuna. Laguntzailearekin baliatu barik, idazle eibartar quz-tiek erruz erabiltzen dituzte forma sintetikoak eibarreraren aberastasuna erakutsiz.

Lexikoaz eta aditzaz iruzkin batzuk egin ditut, eibarrerari goi begirada bat emanaz. Baina bada beste berezitasun bat, kanpotik datorren bati gehien nabarmentzen zaiona: ahoskera. Gai honetaz aurkezten den liburuaren sarre-ran eta gero idazleen testuak ikertzerakoan esaten denari ondo deritzot. Bona-partek euskalkiak eta azpieuskalkiak bereizteko eta sailkatzeko, beste hizke-raren adierazgarri batzuk ahaztu barik, ahoskerako formen oharpenak idazten zituen paperetan, herriz-herri egiten zituen bidaiaren etenaldietan. Gernikan, esate baterako, oharpen hauek aurkitzen ditugu bidaiaren egunkarian: ie, ije, oa, ue, j, s. “J” letraren ahoskeran bi forma bereizten zituen: bata, gaztelania-ren gogorra eta bestea “d’*mouillé, légèrement sifflant*” hau da, palatizatua edo bustia. Guk bustidura eginaz ahoskatzen ditugun “egije”, “argije”, “mendije”, eibartarrek “egixa”, “argixa”, “mendixa” ahoskatzen duzue, bustidura azken muturreraino eramanda. Guk “t” letra bustitzen dugunean, “aite”, “politte”, eibartarrok gauza bera egiten duzue eta “tx” hiperpalatizatura jo. Badago bes-te ahoskera bat non gernikarrok zuek baino urrunago goazen palatizazioan: “dakixu”, “e(g)ixu”, “pixu”, “maixu” eta abar.

Bustidura hau aspaldidanik datorrena da, lehengo eta oraingo idazleetan. Ez dago antologiako testuak ikustea baizik. Eta berriz aipatuko dut lekukotasun bat. Vicente Agirre medikuak, lehen gogora ekarri ditudan lanetan, hala idazten du: “mendisan kerizia”, “gizonen jakiturisa”; baina irakurtzen dugu, baita ere, “estalgijek”, azken hau Gernikako eran.

R. M. Azkuek, hogeita hamabost urte geroago, Hizkuntz Atlasa burutze-ko asmoz eta euskara batuari bidea zabaltzeko, lexikoz, morfologiaz eta ahoskeraz galdeketa bat egin zuen Euskal Herri osoan, *Erizkizundi Irukoitza* izenburuarekin, Ana Maria Etxaidek 1984an argitara eman zuena (Iker-3). Eibarko euskarari zegokiona Odon Apraizek egin zion Kaietano Kareagari, 49 urteko eibartarrari. Inkesta egin ondoren hau da Apraizek dioskuna:

“Kareaga, artífice eibarrés, representa bien el tipo euskaldun medio de su pueblo. En el léxico presenta grandes lagunas. En fonética es bastante conservador: “-a” de “egiza”, “eskua” no evolucionan a “-ixe”, “-uba” o “-ue”. Se conservan -n- y -g- intervocálicas. Entre los jóvenes (hay) más tendencia a la palatización haciendo “-ixa” < “-ija”; “-txe” < “-tte”. Por ejemplo: “baita < baitta < baitxa”.

Toponimian ere badauka lekukotasuna “s/z”ren palatizazioak. *Eibarko Hiri-toponimia* liburuan (Onomasticon Vasconiae, 13, 1995) agertzen dira honako toki-izen hauek: Arexita, Aritxuloeta, Axti, Elejalde (Gorosabel, 1862 = Elejalde), Saastixa, Tellerixa, Urkirixa. Baina Lisibaerreka eta Lisibaleku toponimoak ez dira “Lixiba-”ra bihurtu. Dena den, badirudi palatizazioa azken mendekoa dela.

Hau guztia esanda -eta esan ez dudana nire jakinezari atxeki behar zaiozerebait gehiago egin nahi nuke Eibarko hizkerari buruz. Aurkezten den liburu bere osotasunean ondo egon arren, kritikatzko bat egin behar diot eta horren haritik proposamena. Ondo dakigu gizakumeen lanak beti dituztela hutsuneak eta akatsak. “Humanum est errare” dio latinezko esaldi zaharrak. Baina errakuntza batzuk konponezinak badira, badaude zuzendu ahal direnak eta behar direnak ere. Eibarko idazleen biografiez ari naiz. Liburu honetan azaltzen direnak eskasak iruditzen zaizkit. Ez da liburu hau, jakina, halako helburua betetzeko lekuri proposena. Baina, nahiz eta hala beharrez laburrak izan, beste metodologia batekin burutu behar izan dira ematen direnak. Eta hemen dator aipatu dudan proposamena: Eibarko idazleen biografiak eta bibliografiak liburu baten azaltzea. Hemen gaudenok ondo dakigu nork egin lezakeen lan hau. Lehendik ere badu gai hau arakatua. Eibarko Udalak eta Euskara Batzordeak babestuko lukete lan hau burutzea?

Toribio Etxebarria eta Juan San Martinen datu bio-bibliografikoak ez noa hemen ematera. Luze jardun beharko nuke ahalegin honetan. Eta hitzaldirako jarri didaten denbora mugak ez dit astirik ematen, bestalde pozik egingo nukeen ekitaldirako. Dena den, bi ikerle eta idazle ospetsu hauek -eta ez euska-

ra arloan bakarrik, euskal kulturari baizik- ez ezagutzea lotsa eman behar lieke eibartarrei.

Erromualdo Galdos jesuita (1885-1953) ez da, tamalez, hain ezaguna. Erroman, Belgikako Marneffen eta Burgosko Oñan eman zituen bizitzako urterik gehienak. Erroman “Eskritura Santuetan” doktoregoa lortu zuen, Euskal Herrian oso gutxi jaso duten titulua. Han eta Marneffen zegoelarik, abertzalea zela eta, kontrolatua izan zen eta gurutzatu zituen gutunak bidali ondoren eta jaso baino lehen helerazteko irakurriak. Beste lan batzuen artean bi liburu prestatu zituen, maketazio aldetik bereziak eta moldiztegi ondo apainduak. Agustín Basterretxearen Pasioko bertsoak (1750) Oñan paratu zituen (1927-1928) eta Donostian ederki argitaratu (1928). *Dabiden abestiak* Marneffen euskarara itzuli eta argitaratzeko prestatu zituen. Eskuizkribu antzera kaleratu zen Erroman 1936an. Inprimaketa aldetik oso bitxiak direlako aipatu ditut biak. Gernikan idazten ari naizenez, hemengo berri bat eman behar dizuet eibartarroi. Galdosek ekarri zuen gure Andra Maria parrokiara, 1927.eko larunbat gurenean, Alberto Brodzky, eskultore poloniarra, egindako Bakardade Birjinarren irudia. Eliza honetan ikus daiteke. Eta eibartarra zenez, aipatu behar dizuet Juan Bautista Mendizabal eskultorearen bi irudi ditugula parrokia berean, 1814an erosiak: Kristoren Berpizkundea eta Kristo hila etzanda.

Antonio Iturriotz Urizarrek beteko du nire azken orrialdea. San Martinen esanetan, Eibarko hizkera jatorren erabili dauana Antonio izan da. Genekien gutxia hornitzea merezi zuen, beraz. Eibarren jaio zen 1900.eko martxoaren 12an (J.S.M.: *Escritores euskéricos*). Armagintza Eskolan heziketa teknikoaz jabetuz, Felisa Arrizabalaga Ibazeta eibartararekin ezkondu zen, gazte, 1921ean, zeina hil zitzaion 1936. eko abuztuan. Lau seme-alaba izan zituen: Ignacia (Baskaranen alarguna, Zarautzen bizi dena), Jose (“Pepito”, hamar urtekin Albaceten 1934an hil zena), Alicia (1927an jaioa) eta Aitor (1996an hila). Denak eibartarrak. Aurrera jo baino lehen esango dut datu hauek Aliciak emanak direla. Ricardo Macarrón pintorearekin ezkondu Madrilen bizi da eta bera ere pintorea da. Beste oleo askoren artean Julio Caro Barojaren bi erretratu egin ditu, bata Berako Itzean dagoena eta bestea Iruñeko Museoa.

Errepublikara garaian, familia hartu eta Albacetera joan zen, non arma denda bat zabaldu zuen, Eibarkoak gehien bat salduz. Baina 1934.eko urriaren 4ko matxinada sortu zenean atxilotua izan zen Albaceten, eta denda zarratuta familia Eibarrera itzuli zen 1935ean. Ordurako kartzelatik ihes eginda zegoen Antonio eta Murtzian ezkatututa egon ondoren Aljeriako Oran hirira jo zuen eta handik Errusiara, non –Alicia alabak dioenez– lokomotora fabrika baten stajanovistekin lan egin zuen. Moskura ere heldu omen zen eta ez dakit hemengo unibertsitatean Politika Zientziak ikasteko aukerarik izango zuen, 1936ko udaberrian Eibarrera etorri baitzen.

Gerratea hasi zenean, han-hemenka ibili zen Errepublika eta “nazionalen” gudarostetan. Eibarren zegoela, Arrateko Ama Birjinarren pitxiak salbatzeko

lurperatu zituen, gero agertu zirenak. Errebaleko monja klarisak ezkutatzeko ere aukera izan zuen eta burutu asmoa. Zaragozako frentean (“legionarioa” izanik) Errepublikako armadara pasatu zen eta 1938an Errepublikako Estatua-
ren urte gorria Odesara eramán zutenen artean aurkitzen zen. Itsasontzian urte gorri hori Ameriketara eramateko matxinada berotzen hasia zela sumatu zue-
nean, aurkako talde baten buru eginda, lortu zuen Moskura heleraztea. Gero, Santanderreko Sardinero pasealekuan zebilelarik, atxilotu egin nahi izan zuten
“nazionalak”, baina “legionario” karneta erakutsita, zigorra uxatu zuen. Gerra
bukatuta, Albaceten agertzen zaigu eta handik Bartzelonako bidea hartzen du
Frantziara joateko. Joan ere joan zen, baina zigor zelai batetan atxilotua izan
zen. Handik ere ihes eginda, Iparraldeko baserrian aurkitu zuen babes-lekua.
Baina Europako gerratea hasi zenean, Dominikar Errepublikara deserriratu zen
eta handik, 1943an, Mexiko hiriburura abiatu zen, non bigarrenez ezkondu zen
Martinez Artzapezpikuaren loba batekin. Aitor semea berarekin bizitzera era-
man zuen Mexikora eta biak itzuli ziren Eibarrera 1975ean. Egotalditxo bat
hemen eginda berriz joan zen Mexikora non 1982an (edo 1984an, ez dakit
ziur) hil zen.

Halako abenturazale gizon batek nolako atseginez irakurriko zuen Pio Ba-
rojaren *Zalakain el aventurero* argi izango duzue. Irakurri eta euskarara itzuli
ere egin zuen, egile beraren *La Leyenda de Jaun de Alzate* itzuli zuen mo-
duan. *Altzateko Jaunen Irakurgaiaren* orijinala Euskaltzaindiko Azkue
Bibliotekan daukagu, Juan San Martinek 1981.eko azaroaren 26an ekarria. “Al-
tzateko Jauna” izenburuarekin eleberri honen XV. atala *Euzko Gogoan* argita-
ratu zuen (1955); baina aldizkari honetan agertzen den testua eta eleberri oso-
an ematen diguna desberdinak dira. Bi eleberriak, *Zalakainena* eta *Altzateko*
Jaunarena, argitaratu gabe daude. Beste aldizkari batzuetan ere argitaratu zi-
tuen euskarazko lanak.

Mexiko hiriburuan Versailles kalean bizi izan zen (87. zenbakian) Handik
Jokin Zaitegiri, 1957.eko azaroaren 2lean idatzirik gutun batean hala dio:

“Berrogeitamar urtez goitik nitun nere euskera errikoi, pardel xama-
rra erdi aazturik lotsarren nebillenian, baiña errimiñak arira erakar-
ki, lotu nintzaion, nere bastertxoan bederen, euskera geitze ta apain-
tze arloari. Ondo dakit oraindik guzia bearrez arkitzen naizela; alare
zure aldizkari kemenduna bezain jakitun ori irakurritz aditaltzea
orrenbaten aski izango zait euskaldun lez mailla egoki baten koka al
izateko”

Eta honekin bukatzen dut. Har dezagun eredutzat Iturriotz eibartarra, inoiz
ez bada berandu gure euskara hobetzeko eta ez dakienak ikasteko. Eibarko Eus-
kara Batzordeari eskerrak, bada, euskara zuzpertzeko eta hedatzeko egiten duen
ahaleginagatik. Gaur aurkezten den liburua dugu eredu eta adibide. Besterik ez.